



## “USATEGIETA” SL-NA 2

**Luzera: 5,300km Desnibela:125mt Zailtasuna: Baxua Denbora: 2 ordu.**

*Erdi Arotik dokumentatua dagoen uso ehiza sistema honen funtzionamendua ezagutzeko ibilbidea, Lapurdiko kostaldeko eta Etxalarko mendietako ikuspegi apartak eskaintzen dituena. **OHARRA:** Urrian, uso pasearen garaian, lepoz lepoko bidea itxita egoten da. Ibilbidea magaleko xendatik egin behar da, joan-etorria bide beretik eginez*

### IBILBIDEA

- 0,000 km: **LIZAIETAKO LEPOA** (edo Lizarrieta, 440m), Etxalar-Sara errepidean. Eskuineko (H-E) pistatik igoko gara, GR-11aren Elizondo alderako ibilbideari segituz.
- 0,625 km: Txorilepoa (470m), belartsua eta zabala. Bidea bitan banatzen da. Ezkerretik segi, pista nagusitik (OHARRA: ehiza garaian bidea itxita. Eskuineko bidexkatik joan behar da, joan-etorria bide beretik eginez).
- 0,925 km: **USATEGIETAKO LEPOA** (455m), pago handien artean. Usoak harrapatzeko sareak jartzen diren lekua. Pista nagusitik jarraitu.
- 1,700 km: Lakaingo lepoa (475m). Pista nagusitik segi.
- 2,420 km: **NABARLATSAKO LEPOA** (474m) eta 50. mugarria. Itzulia hasten da: mendi bizkarra utzi eta eskuinera jaitsi, baso aldera, iralekua zeharkatzen duen bidetik.
- 2,650 km: Hariztia eta bidegurutzea. Eskuinetara jo, mendi magaletik doan bidexka zelaitik.
- 3,625 km: Lakaingaineko lepoa (410m). Magaletik segi, iparralderantz eta altuera galdu gabe, pago lerro batek babestutako bidetik.
- 4,175 km: Larrasaietseko borda (385m). Zuzen segi, igoera labur eta pikoa eginez.
- 4,375 km: “Usategieta” ostatua. Ostatuaren gainetik bidexka zelai bat hartuko dugu, basotik ateratzen.
- 4,675 km: Txorilepoa (470m), bertan GR-11 eta etortzeko bidearekin bat egiten dugu.
- 5,300 km: **LIZAIETAKO LEPOA** (440m), Etxalar-Sara errepidea eta aparkalekua. Ibilbidearen hasiera eta bukaera.